

## Francisco Javier Irazoki, Foru Liburutegiko Irakurketa Txokoan protagonista

Francisco Javier Irazoki idazle nafarrak (Lesaka, 1957) hitzaldia emango du bihar, hilak 26, Irakurketaren Txokoan (19:00etan, Foru Liburutegian).

Irakurketa Txokoa Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren ekimen bat da, joan den otsailetik urte amaierara bitartean, hitzaldi saioak eskainiko dituena; hilean, bat.

Irakurle talde horien bidez, irakurketan interesatuta dauden eta esperientziak, sentrazioak eta pentsamenduak komunikatzeko gogoak duten pertsonak biltzen dira. Idazle eta irakurleen arteko topaleku bilakatu da.

Egileek beren azken lana komentatuko dute edo idatzi edo irakurri dituztenen arteko gogokoena, eta entzuleak beren gogoeten partaide egingo dituzte.

Oraingoan, Javier Irazokik 'Musika eta narraztiba' gaia aukeratu, hitzaldira bertaratzen direnekin solasaldia egiteko. Irazoki musika-kazetari gisa jardun zen Madrilan, eta hainbat musika-aldizkaritan parte hartu du, CLOC idazle surrealisten taldeko kide izateaz gainera. Parisen bizi da 1993az geroztik, eta musika ikasketak egiten dihardu han: harmonia eta konposizioa. Idazle gisa, Irazokiren lehen poemategiak *Árgoma* eta *Cielos sesgados* izan ziren. Bigarren horrek, ordura arte idatziriko hiru poema-bilduma jasotzen zituen: *Árgoma*, *Desiertos para Hades* eta *La miniatura infinita*.

Geroago, *Notas del camino* argitaratu zuen Irazokik, bai eta *Los hombres intermitentes* hitz lauz idatziriko poema-liburua, eta *La nota rota*, hainbat garaitako berrogeita hamar musikariren portretak. Extremadurako Idazleen Elkartek eta Extremadurako Juntak bi antologia plaquettes argitaratu zizkieten, 2010ean. Plaquettes direlakoak, neurri txikiko argitalpenak izaten dira, hedadura laburreko literatura lanak zabaltzeko erabiltzen direnak, hala nola poemak edo ipuinak.

Irailetik aurrera (irakurketa txokoak atsedean hartuko baitu ekainean, uztailean eta abuztuan), Eider Rodriguez, Maria Maizkurrena eta Eli Tolaretxipi izango dira hitzaldi programaren barruan, eta, zikloa ixteko, berriz, Bernardo Atxaga, azaroan. Bestetik, gaur arte, José Fernández de la Sota, Yurre Ugarte, Luisa Etxenike eta Anjel Lertxundi bertaratu dira literatura hitzordura.